

FAMILIA BEREKO HITZAK

Irri-solas

Xingar

Bittor **harategi** batean sartzen da.

-Egun on, xingarra nahi nuke.

-Zenbat xerra?-galdegiten dio **harakinak**.

-Lasai, erranen dizut noiz geldi!

...

Harakinak **haragi** xerrak moztzen ditu bost minutuz, eta hirurogeigarrenean, Bittorrek erraten dio:

-Geldi! Hau da nahi dudana!



Xerka dezagun

Lodiz diren hitzetan berdina den zatia azpimarra ezazu.

Ezagutzen ote duzu hitz horien familia bereko beste hitzik?

Oroït

Familia berean biltzen dira:

→ **erro** beretik sortu hitzak: *haragi, harategi, harakin, haragijale.*

Erro horri, **atzizki** bat edo **aurrizki** bat gehituz, edo beste izen batekin elkartuz, familia bereko hitz berri bat sortzen da.

→ Adib.: **egun** erroari, -tegi, -kari... atzizkiak lotuz, egu**tegi**, egun**kari**, **astegun**, egun**ero**, egu**erdi**, Egu**berri**, egun**eratu**, egun**senti**....

Familia bereko hitzak ezagutzea (Hiztegi bat baliatuz, nahi bada)

1* Familia bakoitzaren erro bera azpimarra ezazu.



A- burugogor - burubero - burugabe - buruhandi
buruhauste - txoriburu - bururatu - burusoil
burutsu - buruz - buruzagi - buruzapi

b- hargin - harlauza - harraska - harri - harribitxi
harri-altxatzaile - harrikada - harrikatu -
harri-kozkor - harriztatu

c- izenburu - asteburu - hiriburu - sorburu - iturburu


2*Sarkinak (arrotzak) azpimarra itzazu.

a- etxalde - etxe-ogi - etxe - eltze - heste - etxebizitza - espetxe - etsi
etxegintza - txepetx - etxekoandre - etzi - etxeratu - etxezain -
etzan - etxola

b- gaztaro - gaztaina - gazte - gaztetu - gazteria

c- beharbada - behartsu - behatu - behartu - behatz - beharrean -
beharrezko - behar

3* Hitz hauek sailka itzazu hitz erroaren arabera.



Itsasbehera - basapiztia - itsasgizon - basa-belar -
itsasgora - basaran - itsaski - itsasargi - basati - baserri -
itsaslapur - baso - basajaun - basurde - itsaso - itsaspeko
basetxe - itsasontzi - itsasertz - basozain - itsas-izar -
itsas txakur

Hitz erroa	Familia bereko hitzak
.....	
.....	

4*Hitz hauek sailka itzazu hitz erroaren arabera.

Sukar - sugar - pasahitz - hitzartu - suhiltzaile - hizkuntza - hizki -
sukaldari - hiztegi - hitzarmen - supazter - hitz - sute - hizlari - suziri
su-ontzi - sumendi - sukalde - eskutitz - zuhur-hitz -

Hitz erroa	Familia bereko hitzak
.....	
.....	

5*Hitz familiak sor itzazu.

a- begi:
b- ur:
c- aste:
d- hegal:

6* Hitz familiak sor itzazu (hiztegian xerkatuz) ondoko aurrizkiekin:

a- des-:
b- elkar-:
c- ez-:
d- gain-:
e- aitzin-: